

**2021.09.29 Bizkaiko Politika Orokorreko
osoko bilkura**
Jesús Lekerikabeaskoaren hitzaldia,
Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea

**29.09.2021 Pleno de Política General
de Bizkaia**
Intervención de Jesús Lekerikabeaskoa,
portavoz del grupo Euzko Abertzaleak

Sinistu nahi dot hamen gagozen guztijok Bizkaiak aurrera eitxie nahi dogule, baina nik ez dot nahi aurrera egin atzekue ahaztute, gauza batzuk ahaztu ezkeru zulo berdinetan hainkie sartzeko arriskue dogulako eta gutariko bakotxa, hamen esaten dogunarekin arduratsuek izen biher garilako, zintzuek eta konsekuentiek. Ni izengo naz eta izeteko eskatuko dot.

On urte bete, 2020ko irailaren 28jen, politika orokorreko plenuen, Ahaldun Nagusi jaunak esan eban argi eta garbi: egoera txarra zala baina aurrera ein biher geuntsola egoera haretatik ahalik eta bizkorren urteteko eta aurrean genduzen erronkak gauzatzen juteko. Bizkaiko gizarteari erantzune emon behar geniola, guk dakigun erara, aurrera egiteko konpromisu zintzoaz lana einez, ez ginela hitzetan geratuko eta ez ginela eztabaida antzuetan murgilduko merezi duena baino minutu bat gehijago. Egoera aldatu da bai, baina esandakoa hor dago.

Hori zan 2020ko irailaren 28jen esandakue eta hamen gagoz urte bete eta egun bat geroago. Batzuk, ordungo berbak ekintzetara erun doguz eta horren adibide garbije, arloz arlo, bere lehenengo interbentzioien Ahaldun Nagusijek azaldu dabena da. Helmuga bat hurbil ikusten dogu; ez da egoera txar guztije amaitzuko datorren hilien, etapak gaintitzen jun gara, tamalez danok ez doguz etapa horrek gaintitu, bidien be geratu da jentie, enpresak eta proiektuek, mundu osuari eragin dotson pandemia gogor honen ondorioz. Danentzat, guztijentzat, gomuta berezije eta senideentzat elkertasune adierazi nahi dot danon izenien.

Batzuk, berbetatik ekintzetara pasau ginela argi dago; hor dagoz datuek. Baina asko berba hutsetan geratu dizelakuen nago. Garai haretan dana zarratu behar zala esaten eben guztijek, orainguen dana martxan egon behar dala esaten dabe. Ordun hitz kritikuek eta on be hitz kritikuek, gauza batengatik eta kontrakuaitxik. Momentu haretan ez gendule behar den beste eitxen esaten ebenak gaur be bardine esaten jarraitzen dabe. Batzun pandemia aurreko diskursoak, pandemiako diskursoak eta segurutik pandemia osteko diskursoak bardin bardinek dire; eboluzino gitxitxu dauke. Pandemiak dana ez dau aldatu, argi dago; ez dau batzuen diskursoetan eragin handirik izen. Guaitxik be igul bardine esango dozue baina, berben ganetik emaitzak dagoz, gizartearen bizipenak, pertsonengan gure lanak dauen eragine. Eta zorionez hori da gure iparorratza: pertsonak, egunero, egunero. Pertsonengan eta euren bizijetan gure lanak daben eragine. Horrek mobiduten gaitxu gu, gure jarrerak eta gure politikak, urte

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

askotan gizartie entzuten jakitiek eta horren alde erreakzionatzen jakitxiek gidatu gaitxu: bide bardinetik jarraitxu nahi dogu.

On dala urte bete eman genduzen momentu haretako datuek, gordintasunez; ez gendun ezer ezkutatu, ez genduzen atxeki modure erabili. Datuek emon genduzen bai, baina horretaz aparte, lanien jarraitxu gendun. Gaur beste datu batzuk daukoguz. Zintzotasun bardin bardinaz eta ordun emandako arlo bardinekiek emongo dotez nik on hemen.

On dala 365 egun langabezia %12,1kue zan, gaur egun %11,4kue da. Horrek porzentaje hotzak diz eta datu bakoitzaren atzian pertsonak dagoz 2020ko abuztuen 81.646 langabe egozan, abuztu honetan 12.113 langabe gitxiago izan doguz. Pandemia ez da amaitxu baina egoera hoberuntz doie.

Zerbitzuek mantentziek edo hobetziek diru bilketarekin lotura zuzena dauko. On urte bete diru bilketa aurreikuspenak baino %18 bajuagoa zan, 2020 urtie %11ko berakadaz zarratu zan eta gaur egun diru bilketa datuek pandemia aurreko zifretara bueltau dire. Zerga bilketa, jarduera ekonomikuaz zuzenien lotute dago. Barne produktu gordine 2020ko irailien %19,5 jaitsita zegoen eta aurtengo aurreikuspenen arabera %6,7 inguru igongo da. Industri produkzioie garai haretan %28,6ko beherakada emonda egon zan eta aurtengo lehen 7 hilabete honetan jarduera idustrialak %12,9ko hazkundie izan dau. Empresak desegin ziren, bai; baina 2020ko uztailetik 2021eko uztaileira 312 enpresa sortu dire. Pandemia egoera gaur egun ez da amaitxu eta haren ondorioz daukagun egoera luzetxoagorako izengo da.

Hobetzeko lanien jarraitu biher da egunero; argi dago. Danok dakigu, hobekuntza guzti hau ez dala Bizkaiko Foru Aldundiaren lanaren meritxue bakarrik. Bakoitxak jakingo dau gitxi gora-behera, zein izen dan, bere ekarpena urte honetan. Hori argi ez daukonak igul, hausnarketa txiki edo handi bat egin biherko dau.

Dana ez dago ondo eta dana ez da egin guk nahiko geunken besteko ondo. Hori errepetidu ahal dot 10 edo 100 aldiz be bai biher bada. Autokonplazientziarik ez dago, gure partetik ez behintzet. Badagoz gauza batzuk, gaur egun, atzera begiratute, hobeto egin ahal zirinek. Baina askotan esan dot: gertatu dan honetarako manualik eta protokolorik inok ez dabela euki, ontxe idatzi da egoerari aurre ein dotsogun artien. Dana ondo dagola eta dana ondo ein dala esaten dabena guzurretan dabil. Baina, tamainu bardineko guzurre esaten dagoz dana txarto dagola esaten dabena. Gizartiek hori ez dau merezi eta guk ez dogu jarrera hori eukiko, ez hamen gobernue babesten dogun lekuen, ez gobernatzen dogun lekuten, ez oposizioien gauzen tokijetan. Zuen 'dana dago txarto' jarrera horrekin ez daigun kutxatu gizartie, mesedez.

Zuen jarrera horren adibide esanguratsuenetariko bat egoitzen gestinoien ingurukue izen da. Pasau dan urte honetan, be. Sistemaren kate-begi makalena, segurutik, gure nagusijek izengo ziren. Murillo jauna, nik goguen daukotez on dala 365 egun eta handik ona be, batzuk bakarrik, hildakoen markagailua eguneratzen eben bitxartien, gogorra da esan dotena baina holan sentitzen dot, pleno hartan zenbaki

modure aurpegiratu ziren hildakoak baten baino gehiagotan. Niri min emon eusten, nire taldekidieri be bai eta zuri, Murillo jauna, eta zure departamentuko kideei bardin edo gehiago suposatzen dot. Batzuk estrateji hori erabiltzen eben bitartien, beste batzuk buru belarri ibili zarie egoerari buelta emon nahien. Batzuk bakuna kopuruari buruz iritzije ematen ibili ziren bitxartien, txertuek falta zirela, helduko ote ziren, ez zirela etorriko, txertaketa abiadura haretan, hiru urte biherko genduzela guztiok bakunatzeko, eta beste predikzino zelebren batzuk egiten ebezen bitxartien, tertulijetako minutxuek beteteko, beste batzuk, euren esku eben guztiagaz lanien buru belarri jarraitu zenduen. Konfinamentue gogorra izen zan denontzat eta gure nagusientzat segurutik gehijago, beldurre, bakardadie, inok ez eban holakorik nahi, ez norberentzat ez inorentzat. Iez hemen hitzegiten egon ginenien ez gendun jakin noiz hobetuko zan egoerie. Inzertidunbrie zan gure aurkakorik txarrena. Ondoren, bakunak heldu zin eta txertaketak ein ziren. Otsail amaieran foru araua onartu zan eta martxuen 1etik aurrera hasi ziren egoitzetan bisitak ugaritzen. Irteerak arautzen eta antolatzen joan ziren.

Egoitzetako egoera izan zan hobetze nabarmenena eman eban arlo bat. Gure nagusijen egoerari bueltie emon jakon. Eta, zein izen da hemen be oposizinoien gehiengun jarrera? Egurre eta egurre, kritika apurtzailea, denuntzije, aportazio konstruktibo gitxi eta laguntzie eskaini, bai hitzez baina ez ekintzez. Baina zuen jarrera ez dago gure esku, hori zuen erabakije da, eta zeuek aukeratu beharko dozue zein dan ongoan be egoerie hobetzien aldeko zuen jarrerie. Zuek hausnarketa hori egiten dozuen bitxartien, parkatuko deuskuzue baina guk gizartie entzuten jarraitxuko dogu.

Eta zer dio gizartiek, egoitzen kontuen adibidez? Ez kaleko ni bezelako edonork, ez. Zer dinue egoitzetan dagon jentien familiekuek? Inkestak egin dire. Esan dau Ahaldun Nagusi jaunak, eman ditu datuak. Baina nik azpimarratu nahi dotez.

2015 famili inkestatuek ze balorazio egiten dabe Otik 10ra?

- Bizkaiko Foru Aldundiak pandemin egindako kudeaketari 7,18ko nota jartzen deutse
- Zentroetan arreta emoteko langile nahiko dagon galdetzien 6,30ekue da nota
- Familiei eskaintzen jaken arretari 7,76ko nota jartzen deutse
- Profesionalek ematen duten tratuek 8,37nota dauko
- Egoitzetan daukezen senideek jasoten daben harreraren inguruen 8,06ko nota jartzen dabe familiek

Pandemia aurreko inkestetan baino nota altuagoak dire. Horren aurrien guk zer daukogu esateko? Nik dinot badagola nun hobetu eta horretan jarraitxuko dogula. Zer esan dau oposizinoiek ganbara honetan? Txarto ein dala, nik dakidala txarto 5 baino gitxiago da. Zuek diozuen ez dator bat erabiltzaileen familiek esaten dabenarekin. Parkatu, baina guk honakoetan be gizartie entzuten jarraitxuko dogu. Zeuen esku dago, ongotan be, entzun gor eitxie.

OHARRA: Hitzaldi hau aldatua izan daiteke. Balio duen bakarra, hizlariak berak ekitaldian ematen duena izango da.

NOTA: Este discurso puede ser modificado parcial o totalmente por el orador de manera que solo es válido lo pronunciado en el acto aunque estuviere aquí escrito.

Eta behin horretan jarri ezkeror entzun gor egin ahal dotsozue kasu honetan be, fiskaliak esaten dabeneri. Egon dira Aldundiak egindako gestioan ez laguntzetik aparte denuntzizak jarri dabezenak be, euren eskubidea da eta, egia esan, hori da eskatzen dogune, hain argi dabentak, epaitegire jun daijela; baina gero konsekuenteak izan daitezala.

Zer esan dau Fiskalijek: La memoria de la fiscalía de 2020 destaca que durante la primera ola de la pandemia las diputaciones forales y la consejería de salud realizaron un esfuerzo “improbo y extraordinario a nivel de medios personales y materiales” para el Covid-19 en las residencias, pese a las carencias mundiales que había en aquel momento.

Niri honek, familiek esaten dabena eta datuek esaten dabena balijo deuste. Bakoitzak atara daizela bere konklusinoiek. Pandemiaren golpe gogorrena, kritikak min egitera, denuntziak, epaiketak, gauza asko tokau jatzuz, Murillo jauna, baina ez da hobie, departamentuko langileek, funtzionarioek jasandakua. Momentue da zorijonak emoteko. Emaitzak hor dagoz, horrek izen behar diz oinarrije hobetzen jarraitxuteko. Zorijonak eta eskerrik beruena gure talde guztijen izenien pertsonekin, ahulenekin, gure nagusijekin lan zintzoan aritu zarien guztijori. Etxekoetatik hasi, egoitzetako langileekin jarraitu eta tartien dagozen departamentuko langile guztijeri. Zeuri, Murillo jauna, ahaldun guztiori eta denon gidaritza daramazun horri Rementeria Maiz Ahaldun Nagusi jauna, eskerrik asko.

Hona heldute, komeni da gutariko bakoitzak hausnartzie egoera hobetzeko ein deutzoguzan ekarpenen inguruen eta hausnarketaren ostien gure jarrerak egokitzie. Jarrerak esan dot; hitzek sarritan politiek dire, baina jarrerak eta ekintzak dira egokitu behar doguzenak. Eskua eskeintzie eta elkarlana, hasikeran, berbak dire bakarrik, horrek entzun genduzen iez be, baina ondorengo jarrera eta ekintza ez ziren heldu.

- PPren partetik, hitz bakarra, aurrekontuetarako, “no”; konsekuentea, aukera librea, errespetetan dogu.
- Elkarrekin Bizkaiak, hitzak bai, “tendemos la mano” esan ziguten. Eskua luzetu, nora? baina osteko jarrera ezertarako bez.
- EH Bilduk, hitzak bai; “elkarlana” aurreikusit zuten. Hitz politxe, baina jarrera... lezko urtien emoten eban baietz, (arlo bitarako gehienbat, zaintza sistemie eta udal finantziarioie), baina benetako momentua heltzen danien, gurekin ez dozue nahi.

Hiru eredu, hiru eszenifikazio desberdin baina emaitza berdine. Gugaz ez dozue nahi, hamen ez dago maitxasunik, zer egingo dotsogu ba? Gu aurrera goiez, gizartie eta jentie entzun eta sentitu, eta gure politikak gaurkotasunera eguneratuz; egoerak hori eskatzen dau erronkek hori lortu nahi dabe.

Hori esan eta egiten ari da Ahaldun Nagusije. Hiru ardatz finkatu ebazan gizarte ekintzaren modernizazioa, lurraldea hobetzen jarraitzea eta emplegua eta jarduera ekonomikoaren alde bultzatzea. Ez dire titular hutsek, horri lotute doiez hainbat proiektu, gauzatuko dizenak, hainkak lurrean direla plantietan dizenak, gizartie entzunde plantietan dizenak.

- Gizarte ekintzaren modernizazioa: EtxeTIC, egunekon zentru modelo barrije Bilbon, Basaurin, Etxebarrin, Zallan eta Mungian; 25 bizikidetarako moduluek, 2.500 plaza 2023an zentru soziosanitarijuek, edo langileen baldintzak hobetzeko bidetik, 5,4 milioiko inbertsioa formakuntzan. Ekintza honetatik zein ez da ona Bizkaiko gizartearentzat?
- Lurraldea hobetzen jarraitzea: Banda zabala 8.191 etxebizitzarentzat 2023ra arte. Hori Bilbon eixie erreza izen ahal dau, baina sakabanatute dagozen baserrietara heltzie, operadoriek banda zabala luzatzen ez daben lekuetara heltzie, ez da erreza eta honelako ekintza barik ezinezkue da.
 - Suhiltzaileen parke barria Zallan martxan da eta laster Arratzun be bai. Gainera, parkien %25a barriztute dago. Izan ginin taldiok Uriosten eta ikusi gendun zerbitzue
 - Lezamako Ibilbide zaharra, bidegorrijek, oinezkoentzako ibilbidiek, sensibilizazio ekintzak eta baliabideak.
 - Guggenheim Gernika, Busturialdean, bai. Baina Bilboko Arte Ederren museue handitzie, Euskal Museue handitzie eta Omako basue, be bai.
 - Erreka azpiko tunela, bai. Baina Sollubeko bidie, La Avanzada estaltzie eta Bizkaia guztijen egunero, egunero, eitzen dizen errepideetako hobekuntzak, be bai.
 - Baitxa ingurumenaren aldeko hobekuntzak, jarrerak eta ekintzak; berriztagarren erabilpena; konsumoaren murrizketak; ibilgailu barriek; hondartzetako gestino egokije; basogintzarako moldaketak eta aldaketak, lur publikue handitxuz, landaketa autoktonoan ugaritxuz, espezien batzun landaketa bultzatuz edo beste batzuen erregulatuz. Lurraldie hobetzen, pausuz pausu.
 - Administrazioe eta herritarrak hurbiltzeko, Gertu bulegoak, batzuk martxan dagoz eta beste batzuk laster izengo diz lurralde guztitik Mungijan, Markinan, Igorren eta Getxon.
- Administrazioe hurbildu esan dotenien errenta kanpaina jatort burure. Polemika haundijek izan genduzen, kexak egon ziren. Argi dago ez dala dana nahi gendun bezain ondo urten, badago nun hobetu. Oposizinoien esaten zenduen, arreta pertsonalik ez egoala eta ia 7.000 arreta pertsonalik egon ziren. Batzuk bretxa digitala aipatzen zenduen eta internet bitartez bakarrik egin ahal zala zabaltzen ahalegindu zinen. Bitartien 541.956 arreta telefoniko emon ziren. Eta bai, akatsak egon ziren, gurera heldu zan aitagarrebaren deklarazioe 30 urte hilda egoana. Jausten ari danarekin hori da katastrofea? Nik neuk, superauko dotela uzte dot. Datuek: 992.376 aitorten egin eta 636.264 aitorten aurkeztu. 2019jen baino 56.524 gehijago. Horretatik %70 bueltatzekuek izan dire eta kopuru bardine izan da ezelako aldaketarik gabe onartu dizenak. Aukonplazientziarik ez, autokritika bai, datorren urtien hobetuko da eta, urte gitxitan, erdue izengo da zerbitzu hau. Denborak jarriko gaitxu bakotxa bere tokijen.

- Emplegua eta jarduera ekonomikoaren: Bizkaiko ekintzailletza zentroa, Bizkaia Dorrea, urte bete barru burutute egon ahalko da. Luzapenak sufritu dauz, esan dau Ahaldun Nagusijek, baina, errealdade bat izengo da, munduko beste 140 ekintzailletza gunekin konektatuta. Emaitzak epaituko doguz epe ertainera. Baina epe laburrera zer dogu hemen be? Oposizioien hitz kritikoak hasikeran adjudikazioa bide batetik joango zela uste ebelako eta on beste bide batetik gauzatu dalako. Prozedura garbije eta prozedura argije izen da; holan ez dala izan esaten dabena joan daijela epaitegire, zintzo eta konsekuente izenda.

Horrez gain Escuela 42, martxan dago Nagusi Intelligent Center Urdulizko dorrien, be bai, eta Energi intelligent center, baitxa.

Baina horrez gain 2020ko martxotik 15 foru arau dekretu onartu doguz, oposizioko talde batzun aldeko bozkarekin. Horreri esker Bizkaiko ekonomiari 650 milioi sartu deutsoguz, 66 milioi onura fiskaletan. Mikromaileguak 806 enpresari, kasu gehienetan euren finantziazio bakarra izanik hori. Horren kontra dagoz oposizioko taldiek? Ez dakit ba. Zein izen da oposizioaren ekarpena? Nun egon da oposizioie? Pankartien atzien kasu askotan edo adierazpen instituzionalak proposatzen. Ondo dago, zeuena da aukera, baina gu ez gaitxuzue bide horretan topauko.

15 arau dekretu horretatik, kasu bakoitxien motibu edo atxeki desberdinak argudiatute, EH Bilduk, bateri bakarrik, 15etik 1eri bakarrik, emon deutso aldeko botue. Petronerreko ERTEaren inguruen arauz besteko proposamena eta deklarazio proposamena aurkeztu zenduen. Baina kontuz, hori, hemen Bizkaian. Madrilen egindako deklarazioetan ordezkari batzuk esan eben bardin jakela Petronor zarratzen bada be. Koherentzije.

Guri be min egiten deuskue ERTEAK eta EREak, kaleratzeak eta momentu gogorak, eta arduraz eta lana eginez jokatzen dabe gure ordezkarijek horren kalteak gitxitzeko, dagokijen tokijen eta dagokijena baino harutzago be bai, ziur nago. Guri be ez esatiek min egiten deusku eta afektauten gaitxu. Baina ez dogu bai faltsurik esango, konsekuentiek gara. Hamen be bakoitxak aztertu daijela egoera hobetziaren alde zein izan dan bere benetako ekarpena.

Eguneroko gestinoien hobetzen jarraitxu, zerbitzueak hobetzen jarraitxu, modernizazioie eta gertutasune uztartzen jun, proiektu txiki eta hurbilek erronka handijekin batera burutzen jun. Guzti hori, guk dakigun erara, azaldu, lan egin eta berbie bete. Beti, beti gizartie entzun eta jentientzako lana egin egunero, egunero. Hori da bidie Ahaldun Nagusi jauna eta gure taldie bide horretan sakatzen, tiratzen edo eusten, hor egongo gara. Eskerrik asko.